

# 2018ko UZTAILAREN 23ko KANBOKO HERRIKO ETXEKO BILKURAREN AGIRIA

Herriko Kontseilua, 2018ko uztailaren 23an, astelehenarekin, 19:00etan, Bernadette JOUGLEUX Anderearen lehendakaritzapean bildu da herriko etxean.

Bertan ziren: Bernadette Jougleux Anderea, Auzapeza, Christian Devèze Jauna, Eliane Noblia Anderea, Frédéric Bardin Jauna, Pascale Lespade Anderea, Didier Irastorza Jauna, Eliane Aizpuru Anderea, Henri Saint Jean Jauna, Anne-Marie Pontacq Anderea, axuantak, Vincent Bru Jauna, Patrice Dor Jauna, Yolande Huguenard Anderea, Jean-Jacques Lassus Jauna, Argitxu Hirigoyen Anderea, Jean-Noël Magis Jauna, Corinne Othatcegy Anderea, Peio Etchelecu Jauna, Roger Barbier Jauna, Carmen Gonzalez Anderea, Pascal Bourguet Jauna, Véronique Larronde Anderea, Camille Jenvrin Jauna, Argitxu Hiriart-Urruty Anderea, Philippe Bacardatz Jauna, Nathalie Aïçaguerre Anderea, Amaia Beyrie Anderea, herriko kontseilariak.

Hor ez zirenak edo jakinarazi zutenak: Vincent Goytino Jauna, Christiane Hargain-Despéries Anderea, Maryannick Hirigoyen Anderea, herriko kontseilariak.

Ahalordeak: Vincent Goytino Jaunak Patrice Dor Jaunari, Christiane Hargain-Despéries Andereak Corinne Othatcegy Andereari, Maryannick Hirigoyen Andereak Carmen Gonzalez Andereari.

## **1 – Saioko idazkariaren izendatzea.**

**Aho batez** bertan ziren kideek, Argitxu Hirigoyen Anderea izendatu dute saioko idazkari.

## **2 – Azken saioaren bilkura agiriaren onartzea.**

Auzapez jaunak Herriko kontseiluko kideei galdegiten die oharrak badituztenez ekainaren 4an burutu den saioaren bilkura agiriari buruz. Oharrik eskuratu ez izana adierazten du.

Oharrik batere adieraz izan ez denez, azken saioko agiria aho batez onartua da.

Auzapez Andereak, diru laguntzei dagokien gai-ordeneko 9 zenbakidun puntuari gehigarri bat ekartzea galdegiten die biltzarkideei.

Aho batez onartua.

## **3 – Karrika garbigailuaren erosketa: hornitzailearen izendatzea.**

Bardin Jaunak azaltzen du, elkargoko langileek karrika garbigailu bat erabiltzen dutela, besteak beste, herriko bideen mantenua segurtatzen dutelarik. Komenigarria da gaurko egunean, 2009ko martxoan erosi SCARAB MINOR bide garbigailua aldatzea eta emaitza hobekak dituen mota berdineko ibilgailu batekin hartzea.

Erosketa honen gauzatzeko, prozedura egokitutako merkatu deialdi bat abian ezarria izan da 2018ko apirilaren 25ean (Les Petites Affiches, eadministration64.fr deskargatze guneaet Herriaren gunean).

Bru Jauna gelan sartzen da.

Eskaintzak 2018ko maiatzaren 23an, asteazkenarekin, 12:00etan herriko etxean berantetik pausatu behar ziren. Hiru enpresak diote kontsulta honi molde desmaterializatuan erantzun: EUROPE SERVICE, EUROVOIRIE eta MATHIEU-FAYAT GROUP.

Magis Jauna gelan sartzen da.

MAPA batzordea 2018ko maiatzaren 23an, 14:30etan bildu da gutunak irekitzeko. Eskaintza guzien azterketaren aurkezpena 2018ko maiatzaren 31an burutzekoa zen baina kargu txostenaren arabera proposatu prezioak eta materiaren arteko tartea hain ziren handiak, MAPAko batzorde kideei baimena galdegina izan zaie hautagaiekin biltzea erakuspen eta negoziatze aldi bat eskatzeko.

Erakuspen desberdinak burutu eta eskaintzak aztertu ondoren, MAPAko batzorde kideak bildu ziren 2018ko uztailaren 17an, zerbitzu teknikoek aurkeztu azterketa txostenaren berri ukaiteko. Prezio irizpideak notazioaren % 40 aurkezten du eta balio tekniko irizpideak % 60.

Bilkura egin eta MAPA batzordeak proposatzen du merkatua, kontsultaren araudian aurreikusi eskaintzen azterketa irizpideen arabera, ekonomikoki abantailatsuena bezala hartu eskaintza aurkeztu duen hautagaiari eskaintzea merkatua, erran nahi baita, 90,87 nota ukan duen MATHIEU-FAYAT GROUP, EUROVOIRIE enpresak 88,60 nota eta EUROPE SERVICE enpresak 83,78 nota ukan dituztelarik.

Bardin Jaunak zehazten du zerbitzu teknikoek entseatu dutela MATHIEU-FAYAT enpresako garbigailua eta satisfos atera direla entsegu horren ondotik.

MATHIEU-FAYAT enpresarekin, 9 300 € ZGB-ko hiru urteko mantenu kontratu bat eta garbigailu ohia 8 200 € ZGB-ren truke berriz hartzea barne duen 191 160 € ZGB-ko merkatua sozietatearekin izenpetzeko baimena baimena berari ematera gomita luzatzen dio Auzapez Andereak Herriko Kontseiluari.

Bacardatz Jaunak adierazten du ez duela uztailaren 17ko MAPA batzordearen bilkurarako gomitarik eskuratu eta horregatik dela ez joan batzorde horretara.

Bardin Jaunak erantzuten dio berak duela gomita eskuratu.

Bacardatz Jaunak oharrarazten du ez duela MATHIEU-FAYAT taldeak eskaintza onena egiten prezioari dagokionez. Nota onena lortu eta eta materiala entseatu ondoren herriko langileak gogobete dituen enpresa hautatu du beraz batzordeak.

Auzapez Andereak gehitzen du bi erakuspen izan direla eta, ezbairik gabe, karrika garbigailu hau anitez hobe zela eta eraginkortasun handiagoa ekartzen ahalko duela.

Aiçaguerre Andereak galdegiten du Lehiaketa Fondotik zerbait lortuko duenez erosketa honen burutzeko Fondo honi egin, hastapeneko eskaeran agertzen baitzen material eta karrika garbigailuaren erosketa.

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak baieztatu behar du erosketa hauetako atxiki diru zama agortua den. Hala ez bada, karrika garbigailuaren erosketa bertan sar daiteke.

Auzapez Andereak bozkaldia irekitzen du.

Aho batez onartua.

#### **4 – Arnaga: parkeko arbolen segurtatzea.**

Pontacq Andereak oroitarazten du 2017ko abenduaren 11ko deliberamenduaren ondorioz, operazio honetan obralari den Forêt Conseils, sozietateak 22 574,55 € ZG prezioan proposatzen duen Arnagako ondare oihantsuaren 2018ko estimatze eta segurtatze programa ontzat eman duela Herriko Kontseiluak.

PERRIN Jaunak 2018ko otsailan burutu arbolen osasunaren estimatzearen ondorioz, publiko ugarik kurritzen dituen Arnaga parkeko zatiaren bazterrean (sartzeko eta ateratzeko bideak, Frantses motako loretegia) kokatu 17 haritz lepatutak tomografia baten bidezko (enborrharen zati berezi batean kaptatzaileak pausatuz aztertu zuhaitzaren ekografia orokorra) 4 250 € ZG kostatzen duen estimatze gehigarri bat burutzea beharrezkotzat agertu da.

Orotara 26 824,56 € ZG kostatuko lukeen Parkeko arbolen segurtatze operazioa honela zatititzen da:

- Merkatuaren prezio finkoaren araberako obren guti gorabeherakoa:	17 905,00 € ZG
- Adituen segimendua:	2 700,00 € ZG
- 17 arbolen tomografia:	4 250,00 € ZG
- Obralaritza (%11):	1 969,56 € ZG

**Orotara** **26 824,56 € ZG**

Herriko Etxeak Estatuari diru laguntza bat eskatu dio (Akitania Berriko DRAC/KGDZ) 2018ko urtarrilaren 26ko gutun bat eta 2018ko martxoaren 20ko mezuel baten bidez, 2018ko apirilaren burutu operazio honetarako.

Ondorioz, egokia daiteke DRAC/KGDZ-ak honela proposatu diruztatze proiektua onartzea:

- Diruz lagundu daitezkeen obren zenbatekoa:	26 824,56 € ZG (orohar 32 189,46 € ZGB)
- Estatuaren dirulaguntza (%50):	13 412,28 € ZG
- Herriko Etxearen partehartzea:	13 412,28 € ZG

Gorago azaldu DRAC/KGDZ-ak proposatu diruztatze plana onartzera gomitatua da Herriko kontseilua.

Aïçaguerre Andereak galdegiten du estimatzea burutua izan denez eta zoin diren honen ondorioak.

Pontacq Andereak erantzuten dio ez dituela emaitzak eskuratu baina behar bada herriko etxera igorriak izan direla.

Aïçaguerre Andereak galdegiten du publikoa arriskuan ezarria izanen denez, zuhaitz hauek jende ugarik kurritu zatietan kokatuak baitira.

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak erantzuten dio obrak burutuak izan direla.

Auzapez Andereak gehitzen du estimatze gehigarri honen emaitzak ondoko Herriko kontseiluaren kariatara ezagutaraziak izanen direla.

Aiçaguerre Andereak erantzuten dio dossieraren kontsultatzera etorriko dela.

Auzapez Andereak bozkarazten du.

Aho batez onartua.

## 5 –San laurendi elizaren berriztatze obrak: gehigarriak.

Magis Jaunak oroitarazten du, Catherine MATVEIEFF Anderearen obralaritzapean burutuko diren San Laurendi elizaren berriztatze obren kariatara, Herriko Kontseiluak, 2017ko azaroan hartu deliberamenduaren ondorioz, ontzat eman duela programa, hemen azladu 3 fasei jarraikiz:

- Dorrea eta ezquila dorrea berrituz bukatua den 1. fasea, sei hilabete iraun eta 146 396,46 € ZG kostatu duten obrak.
- Urte bukaeran hasi eta sei hilabete iraunen duen 2. fasean, eliza barnea eta gainaldearen kanpoko berriztatzea aurreikusitako ZG-ko 275 146,14 € prezioan burutuko dira.
- hasi eta 2020 hastapenean bukatu beharko lukeen 3. fasea, eliza barnea berritzeko kostatuko duen ZG-ko 271 314,61 € prezioan.

1. fase- zati finkoaren garaian, zenbait nahasmendu ttipiz ohartu gara ezquila dorrearen egitura mailan, hala nola:

- ezquila dorrera daramaten zoladuren zati nagusiak andeatuak zirela bermagailuen mailan (kokapena harrizko paretetan),
- harrizko paretetan sinpleki pausatu zureria.

DRAC/KGDZ-arekin hitzartua izan da operazio gehigarriak enpresei eskatzea, elizaren berriztatzea molde honetan iraunkorra bilakarazteko gisan:

- 1. zatia : Hargintza/Aldamioa: S.A.R.L. – ARREBAT: ezquila dorrearen marra erroztatze obrak burdinak bermatzeko hargintzaren eskuzko birzilaketaz;
- 2. zatia : Zureria/Estaltzea/Zinkeria/Zurgin lanak) : .S.A.R.L. – PANPI DUHALDE: zoladurako habe nagusiak berriz hartu bermagailu akastunak konponduz, bermagailu metalikoak eta atxikitze organoak gehituz.

Zerbitzu osagarri hauek ondoko gehigarrien arabera kontutan hartzea proposatzen du obralariak:

### ➤ **1. zatiari dagokionez: Hargintza /Aldamioa S.A.R.L. - ARREBAT**

ZG-ko 217 475,13 € prezioan finkatua izan da hastapeneko merkatua

zeinaren 1. faseko kostua:

86 227,86 € ZG

gehigarria ARREBATek 2018/04/12an egin aurrekontuaren arabera

4 393,80 € ZG

Honen ondorioz, hau dugu 1. zatiko zenbateko orokorra, 1. parterako gehigarriaren ondotik:

**90 621,66 € ZG**

### ➤ **2. zatiari dagokionez: S.A.R.L. – PANPI DUHALDE**

ZG-ko 150 228,84 € € prezioan finkatua izan da hastapeneko merkatua

zeinaren 1. faseko kostua:

56 929,60 € ZG

Honen ondorioz, hau dugu 2. zatiko zenbateko orokorra, 1. parterako, gehigarriaren ondotik:

**66 531,25 € ZG**

Obra gehigarri hauek 2018ko irailan abiatuak izanen dira 2. fase –1. obren baldintzazkoa eta Akitaniaa Berriko KGDZ-ak (%40) eta Eskualdeak (%15) diruztatuko dituzte.

Herriko kontseiluari galdegina zaio Auzapez Jaunari gorago aipatu zati bakoitzeko izendatu enpresa bakoitzarekin dagozkien gehigarriak izenpetzeko baimena ematea.

Auzapez Andereak bozkarazten du.

Aho batez onartua.

## **6 –Oussimendia auzotegian kokatu lursailaren salmenta.**

Auzapez Andereak oroitarazten du, 2001eko ekainaren 11n onartu LOP-eko ND aldean (ez eraikigarria) kokatu 14 750 m<sup>2</sup> azalera orokorreko C 142 eta 143 lur zatiak erostea erabaki duela Herriko etxeak 2002ko irailaren 13an. Gassuan Andereari erosi dio lursail hau Herriko etxeak 2003ko ekainaren 11n, DE REZOLA notarioak egin agiriaren bidez.

2004ko uztailaren 19an onartu berrikuste sinplifikatuaren bidez, UE alde eraikigarria bihurtu da lursaila. Garai hartan kasino bat eraikitzea zen xedea.

2009ko azaroaren 9an onartu HTP-an, lursaila HTP-ko UEb aldean kokatua zen, eta bertan onartuak dira, UE sailan onartu okupazioez gain, hotelak, hotel bizitegiak edo turismokoak.

Gaur egun AH 3 eta 4 (14 704 m<sup>2</sup>) kadastratu lursaila zati batez HTP-ko UEb aldean kokatua da beti, eta bertan UE sailan onartu okupazioez gain, adineko pertsonak hartzeko eraikinak, hotelak, hotel bizitegiak edo turismokoak ere onartuak dira.

Burutzen ari garen HTP-aren berrikuste orokorrean aitzinikusia da lursaila etxebizitzak eraikitzea baimentzen duen UB alde gisa sailkatua izan dadin.

605 m<sup>2</sup>-ko azalera atxikia da bideak egiteko.

Herriak Eremuen esku utzi eta honek 14 099 m<sup>2</sup> azalera duen sursail hau 983 000 €-tan estimatu du 2017ko irailan.

2018ko uztailaren 2ko gutunaren bidez, Jean-Noël Oillarburu Jaunak, Durruty eta In'sitom sozietateen kontuko, bere hautzagaitza aurkeztu du 14 099 m<sup>2</sup> azalerako lursail hau 1 470 000 € erosteko, honela osatu higiezin egitasmo bat gauzatzeko:

- %50 etxebizitza libro (52 etxebizitza)
- %50 etxebizitza sozial (40 etxebizitza LLS-en + 12 etxebizitza PLS-en)
- Bai eta eraikitzeko bost zati. Zati hauen erabilpena herriko etxearen gain utz dezake, honek hala nahi izanez gero.

Herriko kontseilua, eskualdatze proposamen honi buruzko iritzia ematera gomitatua da.

Hiriart-Urruty Andereak erraten du haren taldeak kartsuki landu duen arazoa agertzen dela hor eta egoera zertan den azaltzen du. 14 000 m<sup>2</sup>-ko lursail hau, 250 000 € erostea izan da 2003an, erran nahi baita, 17 € m<sup>2</sup>-a, interes orokorreko eta zerbitzu publikoko operazioak gauzatzeko, hau da garai hartako Herriko kontseiluko txostenean ekarria.

Itsasbazterreko hiri anitzetan lursailak eskas dira, gauza bera da retro-itsasbazterrean eta baita gure aldean ere; alta, hemen, Kanbon, 1,4 ha-ko lursail handi bat badago.

Horrelako lursailak edukitzeko zortea dutelarik herriek, bertako herritarrei zuzendu egitasmo ederrak, biziki interesgarriak asma ditzakete lur erabilpena ongi zainduz, alokantza enfiteotikoen bitartez adibidez. Prentsan atzeman zenbait adibide aipatzen ditu:

- Obrek kostatu duten 900 000 € kasik osoki bere gain hartu duen alokatzaile sozial baten esku utzia izan den lursail bat Hendaia hirian, zentro mediku psiko pedagogiko bat eraikiz etxabea.

- Angelu hirian, etxebizitza libro eta etxebizitza sozialak nahasten dituen egitasmo batekin, saltegien zinezko mistotasuna ekarriz, haurtzaindegi batekin etxabea.

- Biarritz hiriak OFS (Lur erabilpen Partalier Erakundea) kontzeptua erabili du. Irabazteko xederik gabeko erakunde hau lursailen jabe gelditzen da eta hartzaileen esku uzten ditu epe luzeko alokantzak batekin, alokatzeko edo jabegotzara heltzeko asmoarekin. Haren ontasuna sal dezake baina eraikia bakarrik hastapenetik finkatu prezioan, edo haren ondokoei utzi; lursaila beti OFS-en jabegotza gelditzen da. COL, herria, Euskal Hirigune Elkargoarekiko partaidetzari esker da egitasmo hau gauzatu.

- Kanbotik hurbilago, Saran, joan den asteko prentsan « goresmen buhakada bat zuzendua izan zaio Battitt Laborde auzapezari », saratar gazteei etxebizitzak proposatzen dien egitasmo bat burutu ondoren, belaunaldien arteko lotura sendotuz eta merkatari berriak erakarriz. Estatuak, Euskal Hirigune Elkargoak, Deapartamenduak, Legebiltzarreko Erreserbak, CAF-ek, EPFL-ek legunduz burutua izan da egitasmo hau.

Etxabea saltegiak, mikro haurtzaindegia, herriko gela, liburutegia, mediku etxea. Adineko pertsonen egokitu bost etxebizitza, hogoita bi etxebizitza klasiko arrazoizko prezioan, m<sup>2</sup> 2 700 € baino guttiagokoa izanik. « Segitu beharreko eredu da » dio hemen dagoen Vincent Bru gure Diputatu eta Herriko kontseilariak eta gehitzen du « ideiak eman beharko lizkieke beste herri batzuei ».

Kanbo herriaren jabegotza den 1,4 ha-ko lursail bat promotore bati saltzekotan da gehiengoko taldea. Problematika morala eta politikoa da. Hiriart-Urruty Andereak zehazten du gai hau jadanik aipatua izan dela baina « zauriaren gainean pikoia ematen dela gehiago ».

Auzapez Andereak erantzuten dio aipatu berri dituen hiriek egitasmo hauek haien beharren arabera gauzatu dituztela. Saltegiak aipatu ditu baina Auzapez Andereak deritza Oussimendian piskat urrun geldituko litekeela. Belaunaldien arteko harremanei dagokionez, Hiriart-Urruty Andereak arrazoin du, biziki interesgarria da eta hemen proposatua den egitsmoa, Kanboko gazte eta zaharragoago batzuei eman dakizkiekeen lursailak badaude. Mistotsuna berez egiten da.

Auzapez Andereak gehitzen du herriak etxebizitza sozialak eraiki behar dituela. Horretarako, kolektibitateak % 50 etxebizitza sozial inposatzen die promotoreei. Oposizioak lursail hau aipatzen du gaur gai ordeneko puntua delako baina ez du orai arte behin ere aipatu « beste zerbait egiteko baliu daitekeen lursaila zelakoan ». Egitasmo desberdinak pausatua izan dira lursail honetarako (kasinoa, adinekoentzako egoitzak) baina ez dira gauzatu ahal zian. Etxebizitza sozialak behar ditu herriak eta tokiko promotore batek prezio interesgarria proposatzen du.

Hiriart-Urruty Andereak zehazten du bere taldeak ez duela zalantzan jartzen etxebizitza sozial beharra dagoenik. Nahiko luke herriak atxik dezan lur erabilpenaren kontrola eta ez diezaion promotore bati sal. Aipatu lau adibideen arabera, egitasmo honi dagokionez, zergatik ez deitu OFS bat, alokatzaile sozialak etxebizitza sozialak eraikiz lur erabilpena kontrolatzeko?

Lursail hau 2003an erosi izan da m<sup>2</sup>-a 16 € ordainduz, Eremuen zerbitzuak 983 000 €-tan estimatu du, erran nahi baita m<sup>2</sup>-a 69 €-tara ekarriz eta Oillarburu Jaunak eta In'sitom sozietateak 1 470 000 € ordaindu nahi luke, erran nahi baita 100 € m<sup>2</sup>-a. Ez da gaur egungo merkatuaren prezioa Kanbon, « Le Bon coin » gunean egiaztatu ondoren, m<sup>2</sup>-aren prezioa herrian 150 eta 200 € ingurukoa da. Hiriart-Urruty Andereak oroitarazten du herriak Tillac lursaila m<sup>2</sup>-a 150 € ordainduz erosi zuela.

Devèze Jaunak erantzuten dio alde batetik jadanik leporatua izan zaiola herriari lursail hau prezio aski apal batean erosi zuela gaur egungo salmenta prezioarekin konparatuz, eta, beste aldetik,

Kasino bat eraikitzeke hastapeneko egitasmoa, krisia eta kasinozaleei inposatu bortxengatik ez dela bururaino eramana izan.

Azkenik, Senior egoitza bat plantatzeko beste ideia baztertua izan da, burutu beharko zukeen promotoreak gibel egin ondoren.

Hastapenetik, eskatu 1 400 000 €-ko salmenta prezio hau herriko aitzinkontuan sartua izan dela eta ondotik sistematikoki gibelatua izan dela urte batetik bestera. Kolektibitateari zegokion beraz lursail honen salmenta ahal bezain untsa burutzea, hastapenean berean sartu zenbateko horren estaltzeko. Egitasmo berri honen %50 etxebizitza sozialez osatua izanen da, azpimarratzekoa zinez!

Dudarik ez du Devèze Jaunak prentsak Hiriart-Urruty Andereak lehenago aipatu egitasmoei bezainbateko oihartzun ona eskainiko diola honi.

Laburbilduz, bi helburuei jarraikiz da egitasmo hau garatua izan, diru mailakoak behartzen duena, bistan dena, baina ere %50 etxebizitza sozial kuota gora lortzearena.

Bestaldetik, heriak dio prezio eskaera hau Oillarburu Jaunari egiten, etxebizitza sozial kuota handi honetara heltzeko bortxarekin.

Devèze Jaunak oroitarazten du oposizioko taldeak hainbat aldiz azpimarratu zuela 1 400 000 € zenbateko hau gibelatua izan zela, buxetaren sinesgarritasuna zalantzan ezarriz.

Adierazten du biziki satisfos dela Oillarburu Jaunak lursail hau herriak ezarri baldintzetan erosteko prest izateaz.

Beyrie Andereak adierazten du ez duela emozio malkorik isuriko Oillarburu Jaunarentzat. Erantzunik gabe gelditu den Hiriart-Urruty Anderearen galderara itzultzen da. Etxebizitza sozialak zinez beharrezkoak baldin badira, zergatik ez hautatu lurra atxikitzea eta alokatzaile sozialei eskaintzea?

Devèze Jaunak erantzuten dio bakoitzak bere hautuak egiten dituela eta oposizioaren ikuspegia eta gehiengokoarena piska bat desberdinak direla.

Herriak operazio hau gauzatu ahal izan balu, baita etxebizitza sozial kopuru apalago batekin, behar bada egingo zukeen garai batez.

Bardin Jaunaren proposamenari dagokionez, erabakia izan da, zinezko eztabaida eraman ondoren, %50 etxebizitza sozialeraino joatea, 1,4 ha-ko lursail zabal batean.

Horra zoin den beraz gehiengoko taldeak programatu hautua. Indarra biziki esanguratsua eta biziki garrantzitsua da eta Auzapez Andereak lehenago oroitarazi du beharrezkoa zela etxebizitza sozial mailan neurri horretako desmarta bat ukaitea. Oillarburu Jaunari dagokionez, ez dio batere oposizioari galdegiten malkoak isurtzea baina gehiago jarrera bat hartzea eta gehien bat 1 470 000 € kosta duen halako egitasmo bati buruz. Devèze jaunak, diruztatzailerik gisa, behatzen du biziki operazio ona izanen dela herriarentzat.

Bru Jauna itzultzen da Sara herriaren operaziora, erranez ezin direla bistan dena bi egoerak konparatu. Egitasmo hau zahar-etxe batekin bururatua izan da, herriak kudeatzen duen 111 ganbarako EPHAD ohi bat, egiazki Estatuaren eskutik oinordetzan utzitako ondasun batekin eta beraz herri barneko herriko eraikin baten berritzea zela hau. Problematika arrunt desberdintzen zen lursail huts batenaz. Bilkura kideei oroitarazten die ez direla etxebizitza sozialak baina bai alokatzeko etxebizitza sozialak. Kanbo herriaren egitasmo honetan, xedea ez da jabe batzuei ondotik salduak izanen diren %50 etxebizitza sozialak egitea, baina bai alokatzeko etxebizitza sozialak. Hiriart-Urruty Andereak aipatu OFS-ari buruzko egoerak, eta Bru Jaunak honekin arrunt bat egiten baitu, jabegora heltzea du helburu. Angelun, herri gehienetan bezala, ondotik lursaila eta eraikia erakunde bati saltzea da xedea, 50 etxebizitza sozial eraikitzeaz arduratuko den alokatzaile sozial bati. Arrunt desberdina da egitasmo hau, alokatzeko etxebizitza sozialak baitira eta jabegora heltzekoak.

Hiriart-Urruty Andereak erantzuten dio jabegora heltzeko alokairuzko etxebizitzak eraikitzea arrunt egingarria dela.

Bru Jaunak zehazten du jabegora heltzea dela hemen xedea lur jabegotzaren kargua arintzeak, ontasuna erosi nahi dutenentzat baizik ez baitu balio. Alokairuzko etxebizitza soziala besterik ez baldin bada, ez da beharrezkoa lur erabilpenarena arintzea alokatzaile sozialak baitu hori kudeatuko. Operazioa deberdina da eta bi koherentzia dira.

Aiçaguerre Andereak galdegiten du lursaila saldua izanen denez HTP berrikusi ondotik. Oraingoan, halako egitasmoa ezin da burutu gaur egungo HTP-ren araudiarekin. HTP dosiera aztertzean, ohartu da zerbitzuek galdegin dutela STECAL bat izan dadin lursail horretan, gehiengoko taldeak eskatu zonatzea eskatzen badu ere. Iduri luke zerbitzu anitz ez direla arrunt ados herriaren hautuarekin lursail hau laborantza lurrez eta lur naturalez inguratua baita.

Bardin Jaunak behatzen du Aiçaguerre Andereak jadanik ezagutzen duela HTP-ren bururapena. Hala da, lursail hau UB aldean izanki baizik ez da saldua izanen. HTP-ren onarpena eta lursail hau UB zonera aldatzea bere klausuletan aipatuko dituen akta pribatu izenpetu bat izanen da. HTP-a onartua izanen delarik, eta zinez hori nahi du Bardin Jaunak, eraikitze baimena pausatua izanen da eta lursail honen erosketa egingen da eraikitze baimena onartua izanen delarik. Kentzeko klausula bat agertuko da salmenta hitzartzean. Dena normalki iragaiten bada, eraikitze baimenaren lorpena heldu den matxo edo apirilaren gertatuko da.

Aiçaguerre Andereari biziki baikor dela iruditzen zaio.

Bardin Jaunak erantzuten dio gehiengoko taldeak badakiela nora doan, badakiela zer egiten duen eta ez duela zernahi kondatzen.

Bacardatz Jaunak oharrarazten du eremuen estimazioa UEB zonan kokatzen den lursail batendako eginga izan dela. Lursail hau gerora UB zonan jarria izateko saldua izanen da. Galdegiten du aldaketa honek eragin bat ukanen duenez eremuen zerbitzuak estimatu prezioan. Ondorio gisa ekartzen du prezio desberdintasunak direla UEB eta UB zonen artean. Arrats honetan aurkeztu estimazioa ez dagokio lursailak geroan izan duen klasifikazioarekin.

Bardin Jaunak erantzuten dio horregatik dela salmenta prezioa 1 470 000 €-tan finkatua izan, eremuen estimazioaren arabera 983 000 €-koa zelarik.

Bacardatz Jaunak untsa ulertua du Oillarburu Jaunak eskaintza interesgarria egin duela 1 470 000 €-ko prezioa proposatuz, estimazioaren arabera 983 000 €-koa zelarik UEB zona batean. Baina eremuetako zerbitzuak estimatzen badu lursail honek 1 200 000 € balio duela UB zona batean, ez da hain tratua ona. Lursail honek 1 600 000 € balio duela badiote eremuek, zer egiten du herriak?

Auzapez Andereak erantzuten dio tratua ez dela hain ona baina hala ere interesgarria da Kanbo herriarentzat.

Bacardatz Jaunak justu azaldu nahi du aurkeztua den prezioa, molde batean sailkatua den lursail batena dela, baina beste molde batez sailkatua izanen dela saldua izateko. Nahiko luke gehiengoko taldeak, lursaila UB zonan sailkaturik duen estimazioa eman diezaion.

Beyrie Andereak ez du ongi ulertzen zer interes duen herriak lursail hau HTP berrikusia izan aitzin saltzean.

Auzapez Andereak erantzuten dio akta pribatu izenpetu bat eginga izanen dela, dena gelditzeko klausula batekin.

Beyrie Andereak galdegiten du zer interesa duen Kanboarentzat.



Auzapez Andereak erantzuten dio denborarik ez dela galdu behar. Aïçaguerre Andereak oharrarazi du gehiengoko taldea baikorra zela eraikitzeko baimena martxoan edo apirilaren emana izanen zela asmoa erakutsiz, ez da denborarik galdu behar beraz eta badu denbora piskat orain HTP berrikuste honekin hainbat afera gibelatuak direla.

Bacardatz Jaunak galdegiten du, 2018ko herriko aitzinkontuan sartu 1 400 000 € horien diruztatze beharrak sortzen duenez arazoa.

Devèze Jaunak erantzuten dio hobe dela diruketa hau ahal bezain goiz kontabilizatua izan dadin. Gehiengoko taldeak dio lursail hau 1 400 000 €-tan saltzeak aitzinikusi operazioaren arabera aukera ederra eskaintzen duela.

Beyrie Andereak gehitzen du hiri barnetik hurbil dagoen 14 000 m<sup>2</sup> azalera duen lursail bat saltzeak bi gogoeta merezi dituela. Kanbo aurkitzen den eremuan eta lur erabilpenak ezagutzen duen presioarekin, lur hori saldu orduko galdua izanen dela eta herriak ezingo duela berriz eskuratu. Arazo hau dute itsasbazterreko herriek aipatzen. Gaur egun ezin dituzte gehiago lurak erosi karioegiak direlako. Oharrak egitekotan, proposatzen du biltzarrak gai hau aztertzeko denbora har dezan. HTP berrikusteko bozkaldian, oposizioko taldea harritu zen batzuk bozkaldiaren ondotik mintza daitezzen eta nahi luke beste pertsona batuzek haien iritzia eman dezaten gai honi buruz, hala nahi badute, bistan dena.

Devèze Jaunak erantzuten dio ez dagokiola berari hitza bati edo besteari ematea, bakoitzak nahi izanez gero mintzatzeko parada baitu.

Beyrie Andereak gehitzen du Kanboar gisa, jakin-nahia dela.

Auzapez Andereak erantzuten dio iruditzen zaiola bakoitzak nahi bezain beste hitza hartzen ahal duela.

Auzapez Andereak bozkarazten du.

Gehiengoak onartua.

Kontra bozkatu dute: Argitxu Hiriart-Urruty Andereak, Philippe Bacardatz Jaunak, Nathalie Aïçaguerre Andereak, Amaia Beyrie Andereak.

## **7 –Mushdehalsuenborda jabegotzaren salmenta.**

Auzapez Andereak oroitarazten du 2000ko apirilaren 14an eta 2000ko urriaren 6an deliberatu ondotik, LOP-eko ND zonan (ez eraikigarria) kokatu 44 892 m<sup>2</sup> azalerako C 350-357-358-359-360-361-362-363-382-389-390-995 lur zatiak saltzea erabaki duela Herriko kontseiluak.

Lursail hau 2000ko urriaren 12an erosi dio herriak Colbert-Pons Andereari, DE REZOLA notarioak egin agiriaren bidez, LOP-eko ND zonan kokatua da.

Gaur egun, 2 102 m<sup>2</sup> azalerako AL 180, 195 eta 182 kadastratu lusaila zati batean, 2009ko azaroaren 9an onartu, aldatu eta azken aldiko 2014ko urtarrilaren 27an berrikusi HTP-ko UCe (1 812 m<sup>2</sup>) eta N (290 m<sup>2</sup>) zonan kokatua da..

Orokorki berrikusi HTP-an aitzinikusia da lursaila UY zonan sailkatua izan dadin. Zona hau nagusiki jarduerak burutzeko eraikinei eskainia zaien UY zonaldean sailkatzea.

Herriak Eremuen zerbitzuarengana jo du 2017ko irailan iritzi bat ukaiteko. Honen arabera, 2 102 m<sup>2</sup> azalerako lursailak 169 000 € balio du.

2018ko ekainaren 28ko gutunaren bidez, Orpi sozietateak bere hautagaitza aurkeztu du 2 102 m<sup>2</sup> azalerako lusail hau (AL 195-182-180 sekzioa ) 210 000 € erosteko.

Huguenard Anderea gelatik ateratzen da.

Auzapez Andereak oroitarazten du, lursail honetan Puyodebat txokolategiaren ondoan gormenta gunea bat sortzea helburutzat hartu zuela herriak. Zinez hori nahi zuen eta ikerketa ugari burutuak izan dira arlo horretan dabilen eta Kanbori gehigarri bat ekarri nahiko liokeen inbestitzaile bat edota bederen enpresa bat atzemateko. Bururaino eraman ahal ez dituen pista desberdinak aztertu ditu herriak eta azkena Gamarteko Loyatho enpresak zuen aurkeztu, herriko mozkinen inguruko gormenta gunea bat egiteko eta gehien bat xingarraren museo bat sortzeko asmoa agertuz. Loyatho Jaun-Andereekin zenbait aldiz bildu da herria. Biziki interesatuak ziren eta ahoz baietz erantzun dute, ondotik gibel egiteko. Alabaina, Bidarten eta, ondotik, Hiriburun saltoki bat ireki ondoren, nahiago izan dute haien hautagaitza kentzea bi inbestizamendu berri hauek iraunkortzeko, hirugarren bat burutu gabe. Nahiago izan dute beraz haien hautagaitza erretiratu.

Molde berdinean, kolektibitateak data batzuk finkatu zituen. Erabakia luzarazteko prest zen eta Loyatho enpresak ezezkoa adierazi ondotik, herriak eskuratu proposamen bat aztertu du. Begi onez ikusten du herriak, desesperatuki handitu nahi duen enpresa bat delako; Gormenta gunea bat sortzeko asmoari uko egiten dio beraz herriak.

Beyrie Andereak ez du untsa entzun, herriko agentzia bat Orpi agentzia?

Auzapez Andereak erantzuten dio bertako langileak Kanbokoak direla hala ere. Enplegu iturria da.

Aiçaguerre Andereak oharra egiten du beraz Orpi agentzia dela lusail horretan plantatuko.

Baietz erantzuten dio Auzapez Andereak.

Aiçaguerre Andereak seinalatzen du, lehenago errana izan dela ez zela posible eremuen estimazioarik ukaitea zonatze berriarekin. Alta, lursail honen saltzeko, eremuen estimazioan, egin beharreko zonatze hau kontutan hartua dela, zinez aplikatua bada. Egitasmo batzuekin egingarria da beraz eta besteekin ez.

Auzapez Andereak erantzuten dio operazio honen burutzeko lursaila, zati desberdinetan zatikatua izan dela.

Aiçaguerre Andereak erantzuten dio ez duela galdera hori egin. Jakin nahi luke geroan burutu beharreko beste zonatze estimaraz dakiekeen eremuei. Galdera da jakitea posible den ala ez egingen den zonatzaren estimazioa eremuei eginaraztea.

Auzapez Andereak galdegiten dio zerbaitek tratatzen duenz eremuek proposatu prezioan.

Aiçaguerre Andereak erantzuten dio ez duela prezioak bakarrik tratatzen.

Hiriart-Urruty Andereak gehitzen du pausatu duen galderari erantzutea besterik ez duela nahi.

Auzapez Andereak erantzuten dio lursail hau zonatze desberdinetan zatikatua izan dela eta horregatik diela herriak eremuei eskaera berri bat aurkeztu, txokolategiko lursaila, azalera orokorretik atera izan baitzen.

Hiriart-Urruty Andereak galdera orokorra pausatzen du bi lursail hauen salmentari buruz. Zergatik ote absolutuki saltzeko frenesia hori? Tillac lursaila hiri barnean 700 000 € erosi du herriak Lehiaketa Fondoaren laguntzarekin eta, aldi berean, hiri barnetik hurbil diren bi lursail saltzen ditu. Diru beharretan ote da herria?

Bardin Jaunak erantzuten dio Musdehalsuenbordako lursaila 2000 urtean erositako dela; hemezortzi urte igurikatu ditu beraz hau saldu aitzin herriak. Eta beste lursailari dagokionez, erosketa eta salmentaren arteko epea hamasei urtekoa da. Ez da egokia, behar bada, frenesia aipatzea hemen.

Hiriart-Urruty Andereak zehazten du biziki galdera garrantzitsuak direla eta erantzun bat nahi luke.

Bru Jaunak erantzuten dio lur erreserba gisa erosi zituzten lursail hauek ondoko belaunaldiek eta ondoko taldeek egitasmoak bete ditzaten. Gaurkoari dagokionez, zenbait urtez Estatuaren laguntzak apaldu dira. Herri guzietan arazo berdinari aurre egin behar diote. Herri batek lurrak dituelarik eta kolektibitatearentzako berehalako baliagarritasun publikorik ez denean, kudeaketa ona egiten da interes orokorreko operazioak diruztatu ahal izateko behar balitz prezio onean berriz saltzea. Izpiritu honekin du herriak lursail hauek saltzeko erabakia hartu.

Aïçaguerre Andereak oharrarazten herriak alde batetik erosten duela eta beste batetik saltzen duela. Orpi ordezkatzeko du kasik.

Bru Jaunak erantzuten dio kolektibitateak ez duela higiezinaren espekulaziorik egiten. Aukera batzuk ez dira gutxietsi behar eta gaurko egunean biziki komeni zaio herriari, bi lursail hauek salduz gure herritarren onurako interesa duten egitasmoak diruztatzea.

Bacardatz Jaunaren aburuz, Oussimendia lursaila salduz espekulazioa egiten da. Hamazazpi urteko epea iragan ondoren ere, zazpi aldiz biderkatua izan dela eros-prezioa lurraren erabiltzeko helburua HTP-ren bidez aldatuz. Ez da erran behar herriak ez duela espekulaziorik egiten.

Devèze Jaunak erantzuten dio herri batek ez duela espekulaziorik egiten, eta hori duela Bru Jaunak azpimarratu. Kolektibitatearen mailako egitasmoak gauzatzen ditu. Lur erreserbei dagokionez, eta besteak beste Oussimendia lursaila, badira jadanik bururaino eramana izan ez diren bi egitasmo.

Bacardatz Jaunak galdegiten du noiz saldua izanen den Musdehalsuenbordako lursaila, HTP berrikusi aitzin edo ondotik. Idatzia izanen ote da akta pribatuan salmenta HTP berrikusi ondotik gauzatuko dela?

Bardin Jaunak erantzuten dio gaur egun lursail hau UCe zonan kokatua dela, datorren HTP-an Jarduerak garatzeko eraikinei zuzendu UY zonan kokatua izanen da. Posible da akta pribatuan idaztea lursail hau bakarrik jarduerari bihurtua dela eta ez dela posible izanen etxebizitzak eraikitzea.

Hiriart-Urruty Andereak gehitzen du 2017ko uztailaren 9ko Herriko kontseiluan, Bardin Jaunak erran zuela salmenta HTP berretsia izanen zelarik baizik ez dela bururatuko eta orain alderantzizkoa erraiten du klausula bat ekarri etab...

Bardin Jaunak erantzuten dio gauzak ez zituzkeela behar bada ongi erran eta berresten dio salmenta ez dela HTP berrikusi aitzin gauzatuko baina akta pribatuan idatzia izanen da ez dela etxebizitzarik izanen lursail horretan.

Hiriart-Urruty Andereak gehitzen du, gehiengoko taldeak erran zuela herri sarrera hau Euskal Herriko kalitatezko mozkinen erakusleho bihurtu nahi zuela eta orain higiezin agentzia bat izanen da. « Hori ote da Kanboren erakuslehoa? Zatozte higiezin agentzia, higiezin promotoreak, dena salgai da, ariza zaitezte airoski! Bikain! Neholako kontzientzia politikorik ez da ».

Auzapez Andereak erantzuten dio, arrunt haren gisara, gehiengoko taldea Kanboz arreguratzen dela eta gormenta gunea sortzeko zinezko asmoa zutela. Baina, zenbait urteren buruan, gauzak bururaino eramanez ezinez, behar da gelditze jakin, eta horretan gaude gaur.

Bacardatz Jaunak galdegiten du hautagaitza aurkeztu zuten enpresak berriz kontsultatuak izan direnez, lursail honen erabilpen helburua aldatua izanki.

Bru Jaunak baieztatzen du gehiengoko taldeak gormenta gunea bertan plantatzeko asmoa zuela, enpresa desberdinekin harremanak lotuak izan dira, Oteiza, tokiko destilategi bat etab... Zoritxarrez bururaino eramanez ahal izan ez diren proposamen desberdinak aitzinatuak izan dira, mediku kabinete bat, eta besteak beste, erradiologiakoa egiteko egitasmo bat agertu da ere eta hau ere ez da bururatu ahal izan. Bru Jauna ez da talde eragileko partaide baina iruditzen zaio gure herritarren onurako interesa duten egitasmoak diruztatzeko xedea zuela salmenta hau burutzeak.

Magis Jaunak bere abstentzioa argitu nahi du. Ez du deus Orpi plantatzeko printzipioaren kontra Kanbon enpleguak babestearen aldekoa baita. Jadanik dauden enpleguak zaintzeko asmoa du eta bereziki alde horretan bere ibilgailu batzuk aparkatzen dituen Dufourq bere auzoaren enpresarenak. Lur zatiketa honen kariatara nahiko luke enpresa honen jardura bederen zaindua izan dadin beste herri batera joan ez dadin. Lur zatiketa printzipioak bakarrik dio abstentzioa adieraztarazten jakinez, Auzapez Anderearekin aipatundoren, herria aterabide bat atzematekotan dela Dufourq sozietatearentzat eta gerta daitekeela beherago aparkatzeko ahala eskain diezaion.

Auzapez Andereak berresten du Magis Jaunarekin solastatu dela honek bozkaldi horri buruzko jarrera azaldu nahi ziolako. Lasaitu du eta haren aburuz adostasun maila batera heldu dira.

Bacardatz Jaunak oroitarazten du 2017ko ekaineko Herriko kontseiluaren kariatara, berriztua izan zen teiltuari buruzko galdera bat pausatu zuela eta erantzuna izan zitzaion ez zuela arreguratzerik, herriak berreskuratu gogo zuela. Jadanik altxatua den eraikineko teila kendua izanen ote da lursailaren salmenta aitzin?

Auzapez Andereak erantzuten dio egitasmo hau bururaino eramane baldin bada, erailin zaharra atxikia izanen zela.

Bacardatz Jaunak gehitzen du errana izan zela teiltak onak zirela eta teiltua aldatu behar zela.

Bardin Jaunak erantzuten dio erosleak eraikina atxikitzen bada, teiltak ere berdin atxikiko dituela.

Beyrie Andereak adierazten du joan den urtean, Bardin Jaunak, herriaren izenean, lursail hau 270 000 € saltzea proposatu zuela, Herriko kontseiluko agirian idatzia den bezala.

Auzapez Andereak erantzuten dio erabakitze desberdinak eginak izan direla. Jakin behar dena da zenbateko azalera saltzen den prezio horretan.

Bardin Jaunak gehitzen du nahikunde bat zela behar bada. Pertsona batzuek haien etxea 1 000 000 € saldu nahi dute, zinezko prezioa 500 000 € delarik. Halako batean errealista izan behar da.

Beyrie Andereak erantzuten dio zorrotasun handiagoa erakutsi behar dela prezioei dagokienez, herriaren ontasuna baita. Ezinezkoa da Herriko kontseiluari prezio bat nahikunde gisa azaltzea.

Bardin Jaunak gehitzen du pertsona serioa dela berantago ikusiko duten bezala. Sinpleki ondasun honek 270 000 € balio zuela estimatu zuen herriak, eremuek aurrekontu orokorra 203 000 €-tan zela estimatu zuelarik. Hala da, herriak egin estimazioa seguru aski goregia zen baina normala da. Pentsatzen du jabe orok « nahiko lukeen » edo « soberesten » duen arabera saldu nahi duela ontasuna.

Hiriart-Urruty Andereak eskatzen du estrapolazio guziak bazter utziak izan daitezzen. Diferentzia da bakarrik joan den urtean lursaila piska bat handiagoa zela, besterik ez. Ez du azalera berdina.

Bardin Jaunak erantzuten dio ez duela balio galdera egitea erantzuna baldin badute.

Hiriart-Urruty Andereak oharra egiten du iduriz gehiengoko taldeak ez duela erantzunik pausatu galderei.

Auzapez Andereak erantzuten dio eman duen lehen erantzuna dela. Iduriz ez zen nahikoa Beyrie Andereak beste bat pausatu duelako.

Auzapez Andereak bozkarazten du.

Gehiengoak onartua.

Kontra bozkatu dute: Argitxu Hiriart-Urruty Andereak, Philippe Bacardatz Jaunak, Nathalie Aïçaguerre Andereak, Amaia Beyrie Andereak.

Abstenitu da: Jean-Noël Magis Jauna.

Huguenard Anderea gelan sartzen da.

## **8 – 64 Departamenduari erosi Errobi kolegioaren ondoko lursaila: erabakia, inkesta publikoaren ondotik.**

Bardin Jaunak oroitarazten du, 2017ko uztailaren 9an hartu deliberamenduaren ondotik, autobus geltokiaren antolaketarekin loturan, Currutchague etorbidea deitu 46 zenbakian eta Assantza karrika deitu 85 zenbakian herriko bideko oinbideak zabaltzeko proposamena kontutan hartu ondoren, 2018ko martxoaren 2ko aginduz izendatu Ibarrart Evelyne, komisario-inkestagile Andereari inkesta publiko bat eginarazten diola.

2018ko martxoaren 22tik 2018ko apirilaren 06ra burutua izan den inkestaren karietara bilduak izan diren dosiereko dokumentuen bai eta komisario-inkestagilearen ondorioen berri ukanik;

Legeak agindu formalitate guziak beteak izan direla kontutan harturik;  
Oinezkoen zirkulazioa segurtatzeko kolegioaren luzeran dauden oinbideak zabaldu behar direla, Departamenduko kontseiluak lursaila 3 280 eurotan saltzen duela kontutan harturik;  
Egitasmo honen aurka neholako eskabiderik aurkeztua izen ez dela kontutan harturik;  
Komisario-inkestagilearen oniritzia kontutan harturik;

Zergati hauen ondorioz, ondoko gaiari buruz haren iritzia ematera gonbidatua da Herriko kontseilua:

- Currutchague etorbidea deitu 46 zenbakian eta Assantza karrika deitu 85 zenbakian herriko bidearen zabaltzea (oinbideak),

- Operazio honen burutzeko beharrezkoak diren lursailen erosketa eta eremu publikoan eranstea, errna nahi baita:

Zatia	Erosi beharreko azalera	Jabea	Prezioa
AZ 228	200 m <sup>2</sup>	Departamenduko kontseilua	3 208 €

Auzapez Andereak bozkarazten du.

Aho batez onartua.

## 9 – Dirulaguntzak.

Auzapez Andereak oroitarazten du dirulaguntza eskaera bat gehitua izanen zaiola puntu honi, saioaren hastapenean erabaki bezala.

Auzapez Andereak zehazten du biziki berant datozen dirulaguntza eskaerak badaudela. Hemendik aitzina, salbuespenak-salbuespen, dirulaguntza eskaerak ez dira gehiago jatorrizko aitzinkontu bozkaldiaren ondotik eskuratuak izanen. Ekainan edo uztailan eskuratu dirulaguntza eskaerak ez dira gehiago tratatuak izanen. Baitezpada errepikatu nahi zuen, buxeta bozkatua izanen den momentutik, dirulaguntza eskaerak ez dira gehiago atxikiak izanen, kolektibitateak eztabaidatu nahiko duen salbuespenez aparte.

Arrats honetako eskaerei dagokienez, migranteei laguntza eskaintzen dien La Cimade elkartearen dosiera bada. Bi migranteren karten prezioari dagokien 618 €-ko laguntza eskaintzea proposatzen du herriak.

Auzapez Andereak bozkarazten du.

Geheingoak alde bozkatzen du.

Kontra bozkatu du: Camille Jenvrin Jaunak.

Bigarren eskaera « Topatopia » kanboko elkarte berri batek aurkeztu du, herrian 2018ko irailaren 1ean, larunbatarekin, animazio ikuskizun eta ateleriez osatu festibal artistiko eta inetraktiboa antolatzeke asmoz.

Auzapez Andereak 500 €-ko dirulaguntza ematea proposatzen du.

Auzapez Andereak bozkarazten du.

Aho batez onartua.

Errobi kolegiotik dator hirugarren eskaera. Duela urte bat edo bi, gerla handiaren inguruko gertakizunak antolatzea erabaki du herriak eta kolegioei parte hartzea galdegin die. Horretarako, Errobi kolegioak laguntza eskaera bat egin berri du 2018ko azaroaren 20tik 24ra, 3.-eko hirurogoita hamar ikaslek burutu beharreko Verdunerako bidaiaren gastuen parte bat estaltzeko. Laguntza eskaera hau oroitzarre aurrekontuan sar daitezke eta ez dirulaguntzekoetan arrunt ohiz kanpokoia baita, baina Errobi kolegioak bakarrik dirulaguntzen bidez lor dezake dirua.

Auzapez Andereak 2 000 €-ko dirulaguntza ematea proposatzen du.

Auzapez Andereak bozkarazten du.

Aho batez onartua.

Jadanaik beranta handia zuen Emaitzak du azken dirulaguntza eskaera egiten. 1 000 €-ko dirulaguntza eskatzen du elkarte honek eta Auzapez Andereak 500 €-koa eskaintzea proposatzen du.

Auzapez Andereak bozkarazten du.

Gehiengoak onartua.

Kontra bozkatu du: Roger Barbier Jaunak.

Beyrie Andereak zehaztasun bat eskatzen du. Jakin du Kanbo eta Itsasuko aldean migranteez arduratzen den Haize Hegoa elkarte Auzapez Anderearekin bildu dela. Arrats honetako gai-ordenean agertzen ez den dirulaguntza eskaera egin du elkarte horrek.

Auzapez Andereak erantzuten dio ez dela dirulaguntza eskaerarik egina izan. Egia da duela hilabete eta erdi inguru Borthury jaunarekin bildu dela. Solasaldi horretan, hainbat puntu aipatuak izan dira baina Auzapez Andereak ez du deus hitzeman. Etchamendy Anderearen partetik hitzordu eskaera ukan du geroztik. Aukera desberdinak proposatu dizikio mailez Auzapez Andereak eta ez du erantzunik ukan. Ezin du hau baino gehiago egin.

## **10 Finantzak.**

### **10-a) Balio-ezean onartu hartzekoak.**

Devèze Jaunak adierazten du kutxazainak berreskuratu beharko dituzkeen baina lortu ahal ez dituen diruketa batzuk direla. Balio-ezean onartzeko eskaera orotara 3 669,90 €-koa da.

### **10-b) Hartzeko itzalia.**

Devèze Jaunak adierazten du puntu hau desberdina dela aitzinekoari konparatuz justizia erabaki bat izan baita herriak norbanako batek herriari zion 108,25 €-ko eskolaldi inguruko arloko zorra ezabatzeko.

### **10-c) Aitzineko kontu aldietako ordena mugimenduak.**

Devèze Jaunak zehazten du aitzineko kontu aldietan eginak izan diren ordena operazioak direla. Kolektibitatearen finantzak ez dira hunkituak izanen ordena operazioak baitira. Amortizamendua eragiten ez duten postuei eman dirulaguntzak berriz hartzea eramaten duen kontu teknika da. Diruzaintza arloan ondoriorik ekarriko ez duen erregulazio hau 3 017 € diruketarako proposatua da.

Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du zergatik pertsonaren izena agertzen den 10-b puntuan. Biltzarrean direnetan nehorik ez du jakiterik nor den.

Devèze Jaunak erantzuten dio ados dela. Hobe daiteke agertzen ez balitz. Oharrarazten du bestalde ez duela irakurri, horrela ez da agirian agertuko, hala ere, kasu zehatz honetan eta legezko likidazioa izanki, Auzitegiak du agerrarazten.

### 10-d) Aitzinkontu nagusiko 1. erabaki aldatzailea.

Devèze Jaunak adierazten du herriko aitzinkontu nagusiko lehen erabaki aldatzailea dela. Aldaketa bat eragin duen 45 000 € heineko titulu baten birsailkatze bat da gehienbat.

Ondoko hauek dira aldaketa honek hunkitzen dituen postuak:

#### Ibilmolde saila – diru sartzeak

<b>Kapitulua – artikulua – izendapena</b>	<b>DM1 - 2018</b>
042 – 777 Emaidza kontura intsuldatu inbestizamendu dirulaguntzen kuota	11 594 €
<b>OROTARA</b>	<b>11 594 €</b>

#### Ibilmolde saila – xahutzeak

<b>Kapitulua – artikulua – izendapena</b>	<b>DM1 - 2018</b>
042 – 6811 ibilgetu gorpuzdun eta gorpuzgabekoen amortizazioei dotazioak	4 043 €
65 - 65733 ibilmolderako dirulaguntzak departamenduari (kolegioa)	2 000 €
65 – 6574 Elkarteei eta zuzenbide pribatuko beste pertsoneri dirulaguntzak	1 618 €
67 – 673 titulu baliogabetuak (aitzineko kontu aldietatik)	46 143 €
022 – 022 ustekabeko ibilmolde xahutzeak	- 2 210 €
023 – 023 biramendua inbestizamendu sailera	- 40 000 €
<b>OROTARA</b>	<b>11 594 €</b>

#### Inbestizamendu saila – diru sartzeak

<b>Kapitulua – artikulua – izendapena</b>	<b>DM1 - 2018</b>
040 – 28158 amortizazioak / beste instalazioak, materiala eta teknika tresneria	4 043 €
13 – 13251 hornidura dirulaguntzak / eratzikitze GFP	44 089 €
021 – 021 biramendua ibilmolde sailetik	- 40 000 €
024 – 024 ibilgetu salmenten mozkinak	6 850 €
<b>OROTARA</b>	<b>14 982 €</b>



## Inbestizamendu saila – xahutzeak

<b>Kapitulua – artikulua – izendapena</b>	<b>DM1 - 2018</b>
040 – 13913 emaitza kontura intsuldatu inbestizamendu dirulaguntza / departamendua	5 594 €
040 – 139151 emaitza kontura intsuldatu inbestizamendu dirulaguntza / eratxikitze GFP	4 940 €
040 – 13918 emaitza kontura intsuldatu inbestizamendu dirulaguntza / bestelakoak	1 060 €
10 – 10223 tokiko hornidura zerga	825 €
204 – 204182 hornidura dirulaguntzak / beste erakunde publikoak / eraikinak eta instalazioak	1 500 €
020 – 020 inbestizamendurako aurreikusi xahutzeak	1 063 €
<b>OROTARA</b>	<b>14 982 €</b>

### **10-e) Diruzaintza lerro baten irekitzea.**

Devèze Jaunak adierazten du Euskal Hirigune Elkargora intsuldatu behar diren 1 600 000 € inguruko soberakinak badituela zenbait astez edoa hilabetez saneamenduko aitzinkontu gehigarrian. Hala ere, aitzinkontuetan eta, besteak beste, aitzinkontu nagusietan, sartze edo xahutzeen arabera sartzan ahal zen dirutza fondo bat bezala erabiltzen ziren soberakin hauek.

Euskal Hirigune Elkargora besterendua izan da saneamendu eskuduntza eta, ondorioz, herriak soberakin hau galduko du 2017an. 1 600 000 €-ko « matalaz » hau ez du gehiago erabiltzen ahalko beraz kolektibitateak, eta horregatik proposatzen zaio Herriko kontseiluari diruzaintza lerro bat irekitzea. Hain segur, EHE mailan bizi zailtasunak ikusirik, herriak ez du diruzaintza lerro hau eskatzerik edo biziki berant baina, printzipioz eta zentzudun izateko, komeni da plantan ezartzea.

Usaian bezala, banku edo finantza erakunde desberdinengana jo dugu: Crédit Mutuel, Banque Postale, Crédit Agricole eta Caisse d'Épargne.

Banque Postalaren eskaintza atxikitzea proposatua da urtean % 0.42-ko mozkin tasa batekin. Engaiamenduko komisio fresak 1 600 €-tan dira eta ez erabiltze komisioa, erabilia ez den zenbatekoaren gainean kalkulatu %0,10-ekoa. Devèze Jaunak zehazten du operazio honen diru fresak aski apalak izanen direla.

Bacardatz Jaunak galdegiten du diruzaintza lerro horren zenbatekoa, gau honetan bozkatu lursailen bi salmenten bateraketaren heinekoa denez, erran nahi baita 1 400 000 € Oussimendia eta 200 000 € Mushdehalsuenborda.

Ezetz erantzuten dio Devèze Jaunak. Ustekabe hutsa da. Egia dena aldiz da 1 400 000 €-koa ez dela sekula gauzatu, senior bizitegiak egiteko operatzaile baten hastapeneko engaiamenduaren arabera aitzinkontua sartua zelarik alta. Hala da, eta orain arte herriak ez du sekula arazorik izan saneamenduko aitzinkontutik atera 1 600 000 €-ko soberakinari esker da, bai eta diruzaintza globalizatua zelako oraiko kontu aldiaren urtarilaren 1a arte

Auzapez Andreak 10. puntu osoa bozkarazten du.

Aho batez onartua.

## **11 – Arnaga txarteldegia eta prezioen kudeaketagunea.**

### **1 – « Arnaga txarteldegia » kudeaketaguneko estatutuen aldaketa**

Pontacq Andereak oroitarazten du, 1962ko apirilaren 18ko deliberamenduaren ondorioz, Herriko kontseiluak erabaki duela diru sartzeko kudeaketagune bat irekitzea Anagako bisiten ustiaketarako.

Aurten, txartelez gain, museora sartzeko mota anitzeko kultur eta arte gertakizunak (kontzertu, antzerki...) antolatuak dira Arnagako gunean.

Diru sartzeko sail honi dagokionez, internet bidez linean txartelak ordaintzeko molde berri bat proposatua izanen da. Txarteldgiko DFT kontuan zuzenki esleituak izanen dira ordainketak.

Kontutan hartu behar da American express, Cofinoga kartak edo PayPal sistema ez direla onartuak erakunde publikoetan, ondorioz, ez zaie ordainketa molde hau proposatzen erabiltzaileei.

Kontulari izendatzaile publikoak aldaketa hau ekartzeari oniritzia eman dio 2018ko uztailaren 2an.

Herriko kontseiluari galdegitzen zaio iritiza eman dezan « Arnaga txarteldegia » kudeaketaguneko estatutuen aldaketa proposamen honetaz.

Auzapez Andereak bozkarazten du.

Aho batez onartua.

### **2 – Prezioak**

Pontacq Andereak, Arnagako « ikuskizun » prezio bat finkatzeari buruzko iritzia agertzea proposatzen dio Herriko kontseiluari, hemen aurkeztu proposamenari jarraikiz:

Prezio betea-----	13.00 €
Abantailazko prezioa / partaidetza -----	11.00 €
Prezio apaldua (12-18 urteko gazteak, ahalmen urriko pertsona eta laguntzailea)-----	6.80 €
Prezio apaldua (7-12 urteko haurrak)-----	4.00 €
Urririk 7 urte pekoentzat	

Bacardatz Jaunak galdegiten du ez denez prezio bat kanboarrentzat, prezio apaldua adibidez.

Auzapez Andereak erantzuten dio herriak ikuskizun bat antolatzen duelarik, eta hau edozoin tokian, ez dela Kanboarrentzako preziorik ez eta arrotzentzakorik.

Bacardatz Jaunak gehitzen du Kanboarrek haien partea ekartzen diotela Arnagari dirulaguntzetan sartu zergen bitartez.

Auzapez Andereak erantzuten dio Kanboarrek Anagako Villa eta lorategiak urririk bisita ditzaketela eta ikuskizunetara sartzeko aldiz, ordaindu behar dutela.

Bacardatz Jaunak nori zuzenduak diren abantailazko prezioak.

Auzapez Andereak erantzuten dio ondokoak direla: les Amis du Théâtre, les Amis d'Arnaga, l'association des amis du Théâtre Baionan. Prezioa hau aitzinetik lekua atxikitzen dutenei zuzendua zaie berezikiago.

Bacardatz Jaunak oharrarazten du Kanboarrek lekua aitzinetik atxikitzen badute, abantailazko prezioa ordainduko dutela.

Baietz erantzuten dio Pontacq Andereak.

Aiçaguerre Andereak oharrarazten du hobe litzatekeela, horrelako deliberamenduei dagokienez, prezioak aitzinagotik aztertzea, urte bukaeran ondoko urterako adibidez.

Auzapez Andereak oharra kontutan hartzen eta proposamena bozkarazten du.

Aho batez onartua.

## **12 – Ostiraleko merkatua: araudiaren aldaketa.**

Auzapez Andereak gogora ekartzen ditu araudi honen aldaketa nagusiak:

1. artikulua: ostiraleko merkatua 8:30etatik 13:00etara irekia izanen da eta ez gehiago 14:00etara eta baimen berezirik ez bada lekuak 14:00ak aitzin hustu behar direla.

3. artikulua: prezioak okupatu eremuaren izarien araberakoak dira (luzeena).

25. artikulua: zehaztua da zona urdinean aparkatua den ibilgailu orok isun bat bil dezakeela, ostiral goizeko saltzaileenak barne.

Auzapez Andereak bozkarazten du.

Aho batez onartua.

## **13 – 2018ko « Tour De France / Frantziako Itzulia » hitzarmena.**

Irastorza Jaunak oroitarazten du Senpere eta Ezpeleta artean, 2018ko uztailaren 28an, burutu den 2018ko « Frantziako Itzulia » lasterkaldiko 20. etaparen kariatara, Kanoko herriarengana hurbildu dela Amaury Sport Organisation Sozietatea (A.S.O):

- Antolakuntza eta Prentsa Gunearen premanentzia aterbetzeko Labéguerie kirol gunean plublzitaterik gabeko lokalak eskura uztea galdegiteko.
- Antolakuntza eta Prentsa Gunearen premanentziatik hurbil, A.S.O.-k baimendu ibilgailuak bakarrik aparkatzeko aparkalekuak eskura uztea galdegiteko.

A.S.O sozietatea, Ezpeletako herria eta Pirinio Atlantikoetakoekin izenpetzeko baimena Auzapez Andereari eman diezaion galdegina zaio Herriko kontseiluari.

Hitzarmen honen 1. artikuluan idatzia da: « Antolakuntza eta Prentsa Gunearen Permanentzia antolamenduak eragin fres eta karguak hitzartuak diren Ezpeletako herria eta Kanboko herriaren artean, pertsonalki arduratuko baitira horretaz ». Aiçaguerre Andereak galdegiten du zer erran nahi duen horrek xuxen.

Irastorza Jaunak erantzuten dio A.S.O sozietateak duela lehen hitzarmen bat izenpetu Ezpeletako herriarekin. Ondotik du horrek hitzarmen bat izenpetuko Kanboko herria eta A.S.O sozietatearekin.

Aiçaguerre Anderak oharrarazten du beraz Kanboko herriak beste hitzarmen bat izenpetu beharko zukeela Ezpeletako herriarekin.

Irastorza Jaunak erantzuten dio hitzarmen hori bera dela izenpetuko, bi herriak eta A.S.O sozietatearekin.

Aiçaguerre Anderak galdegiten du zenbat ordaindu beharko duen herriak. Langile gastuez gain mahaiak alokatuak izanen dira?

Irastorza Jaunak erantzuten dio mahaiak urririk eskura utziak izanen direla, Kanbon iragaiten diren beste ekimen batzuetan egiten den gisara, hala nola maiatzaren 4ko konferentzia kasu, dena urririk utzia izan baitzen. Gertakizun handiak direnean, herriak indar bat egiten du.

Bardin Jaunak zehazten du mahai bakoitzean Kanboko herriari buruzko liburuxkak emanak izanen direla. Egun erdi bat irauten du etapak eta kazetariak nahi ala ez Kanbo aipatuko dutela. Helikopteroak ere Kanboren gainetik ibiliko dira. Frantziako Itzulia ezagaturik, Arnagaren gainean seguraski zoom bat egingen dute.

Devèze Jaunak oroitarazten du halere baduela zenbait urte Departamenduko kontseiluari laguntza galdegiten diola Kanbo herriak sostengatu egitasmo anitzen kariatara. Arrunt desegokia irudituko litzaioke Departamenduko kontseiluari zerbait gehiago galdegitea.

Irastorza Jaunak erantzuten dio kasu honetan A.S.O sozietatea dela eta ez duela horrek deus ikustekorik Departamenduko kontseiluarekin.

Bacardatz Jaunak 2018ko Frantziako Itzulia dela eta, zuntz optiko sare bat tiratua izan dela kazetariarentzat, kiroldegia eta ezker paretarekin lotura egiteko. Gauza ona da baina zuntz optikoa Kanbora heldua denez, ba ote dira garapen, lotura proiekturik. Ba dira dudarik gabe zuntz optikoa baliatu nahiko luketen enpresak.

Irastorza Jaunak erantzuten dio instalazio hau Frantziako Itzuliari esker egina izan dela. Normalki, 2023an, jende guzia lotzen ahalko da zuntz optikoari.

Auzapez Andereak bozkarazten du.

Aho batez onartua.

## **14 –Linky kontagailuak.**

Auzapez Andereak azaltzen du Kanboko herritar anitz biziki arreguratuak direla kontagailu komunikatuak plantan ezarriak izanen direla jakitean.

Gogora ekarria da Energiaren Kodeko L.322-4 artikuluan aurreikusia dela banaketa sare publikoetako obrak kolektibitate publikoen eta Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2224-31 artikuluko IV-an izendatu haien elkargoaren jabegotza direla.

### **1. Zuzenbide arloan:**

**Auzapezak ez du eskurik kontagailu honen instalazioa debekatzeko** bere herrian. Frantses zuzenbidean Trantsizio Energetikoan ekarria den Europar Zuzendarau batetik dator Linky eta « *legearen kontrakoa litzateke Herriko Kontseilu batek Linky kontagailuen hedapenaren kontrako deliberamendu bat hartzea* » (2016ko uztailaren 26ko AO, Barne Ministerioa).

Gutarik hurbil diren Tarnos edo Hazparne bezalako herriak, besteak beste, hunkitzen dituzten jurisprudentzia berri batzuk sortu eta haien deliberamendu eta aginduak baztertuak izan dira

**Kontagailuak ez dira herriaren jabegotza** hedatua den uste komunak alderantzizkoa sinestarazten badu ere. Pirinio Atlantikoetako Energia Sindikatuaren (SDEPA/PAES) jabegotza dira sareko obrak, eta kontagailuak ere hala dira.

Izan ere, eskuduntza Banaketa Elektrokoaren Aginte Antolatzaillearen esku utzi dio herriak, Pirinio Atlantikoak departamenduko herri guztiak bezala (bere sare hidroelektriko propioa duen Laruns-az aparte).

## **2. Osasun arloan:**

Elikadura, Ingurumena, Lana eta Ekonomiaren Osagarri Segurtasun Agentzia Nazionala (ANSES) eta Frekuentzien Agentzia Nazionala (ANFR) bi erakunde publikoei, tresneria honek eremu elektromagnetikoei esposizio mugaren araudizko heinak errespetatzen dituzenez egiaztatzeko ardura eman die Estatuak.

ANSES-en arabera, ikerketa hauen emaitzek diote « *gertagarritasun biziki apala da kontagailu komunikatu radioelektrikoei (...) isuri eremuekiko esposizioak epe labur edo luzean osasun mailako efektuak sor ditzan (...)* ».

**Publikoaren eremu elektromagnetikoei esposizioari dagokien europar eta frantses mailan zehaztu osasun normak errespetatzen ditu Linky sistemak** (iturria: 2016ko martxoaren 8an, AO-an argitaratu Ingurumen Ministerioaren erantzuna). Ikerketa guzti hauek argitaratuak dira eta bakoitzari dagokion internet gunera joz aurki daitezke ([www.anses.fr](http://www.anses.fr) eta [www.anfr.fr](http://www.anfr.fr)).

**Hala ere, norma haiek errespetatuz, tresna elektriko edo elektronikoko andana batek beharrezkoak dituen eremu elektromagnetikoei sortu publikoaren esposizioak (apala bada ere) eragin ditzakeen ondorioen arazoa ez da betirako konpontzen.**

## **3. Datu pertsonalei dagokienez:**

Informatika eta Askatasunen Batzorde Nazionala (CNIL/IABN) kontsultatua izan da etxeetako eguneroko kontsumoen kontagialu batek grabaketak egitea Informatika eta Askatasunak legearen arabera zenez jakiteko.

**CNIL-ek, 2012ko azaroaren 15eko 2012-404 deliberamenduaren karietara, gomenduak eman ditu kontagailu komunikatuek zehaztu kontsumo datuen tratamenduari buruz. Bereziki gomendatu du kontagailuaren bidez eskura daitekeen « kargu kurba » funtzionalitatea zorrozki kontrolatua izan dadin bilketa eta erabilpenari dagokionez (bilketa mugatua, erabiltzaileak onartua, ahalmenak dituzten pertsona batzuek burutuak eta datuen edukitze mugatua) hunkituak diren pertsonen bizi pribatuari lotu argibide anitz kentzeko balio baitu kargu kurbak.**

Auzapez Andereak, ondokoari jarraikiz pausatu koadroa onartzea proposatzen die Herriko kontseiluko kideei:

- Herritarrei gomita luzatzen zaie:
  - Haien etxebizitza edo jabegotzan sartzea onartu edo debekatzeko,
  - Halako kontagailu bat ezartzea onartu edo debekatzeko,
  - Kontagailuak bildu datuak operadorearen merkatari partaide batzuei helaraztea onartu edo debekatzeko.
- Erabiltzaileari, izan jabe edo alegero, kontagailu komunikatu bat ezarria izanen zaiola aitzinetik argiki jakinarazi behar zaio eta berak gutun soil batez edo, hobeki, gutun artamendatu baten bidez haren ezadostasun eskubidea baliatzeko ahala ukan behar du.

Auzapez Andereak zehazten du herritarrei gutun artamendatu baten bidez haien iritzia eman dezaten, horrelako kontagailu bat ezartzea onartu edo debekatzeko.

Aiçaguerre Andereak oharrarazten du zenbait akats ttipi atzematen dituela aurkezpenean; besteak beste ekarria da Arbonako herriak bere agindua kendu behar izan duela. Gaurko egunean delako dokumentua ez da kendua izan. Suprefeturak gutun bat igorri dio herriari eta kolektibitateak Auzitegi Administratibora hel egin du eta epaiketaren zain da oraindik.

Kontagailuei dagokienez, kontagailuak herriarenak dira beti, banaketa eskuduntza kanpoko erakunde bati utzi badio ere.

Bukatzeko, ANSES-en emaitzak aipatuak izan dira, baina, geroztik piskat zorrotzagoak diren beste ikerketa batzuk izan dira eta egia da gero eta kolektibo gehiago sortzen dela, eta gaur egun, zazpirehun herri baino gehiago inguruk uko egiten diote Linky kontagailuen ezartzeari.

Aiçaguerre Anderea ez da hor erraiteko kontagailu hauen « aldekoa » edo « kontrakoa » dela baina bakarrik erraiteko zerbait egin behar dela. Galdegiten du zer den bozkatua izanen, deliberamendu bat edo agindu bat hartzea.

Auzapez Andereak erantzuten du herritarrak informatzeko baimena eman izan zatzaion eta Herriko kontseiluak erabakitzen du herriko eremuan, Kanboko biztanle orok erabaki dezan eta bere etxean kontagailu bat instalatzeaz ala ez duen iritzia bat egiteko idazteko ahalmena ukan dezan.

Aiçaguerre Andereak ohar bat egiten du adierazteko dokumentu horretan ez dela batere ordena publikoaren atxikitzea aipatua, egia, baita zalapartak sor daitezkeela instalatzera etortzen direlarik eta orduan, Auzapez Anderearen ardurapean erortzen da.

Auzapez Andereak baiezkota ematen du baina Herriko kontseiluan aztertua den puntu bakoitzak ordena publikoa nahas dezake. Egoera horren berri Kanboko herriak ukan dezan nahi du.

Bacardatz Jaunak oharrarazten du gauza bat eskas dela aurkeztu hiru puntuen artean, zer leporatzen ahal zaio kontagailu bat ezartzeko bere etxera sartzen utziko ez duenari. Auzapez Andereak erantzun bat ematen ahal ote dio galdera honi?

Auzapez Andereak entzuten du gai honetaz ari denean, arazoaren elementu nagusia baita.

Bacardatz Jaunak nehork ez duela erantzunik eta energiaren erregulazio batzordeak emanen duela.

Bardin Jaunak gehitzen du uste duela Linky kontagailurik ez dutenek kontsumo zerrendak ordaindu beharko dituztela.

Auzapez Andereari iruditzen zaio eztabaida luze eta konplikatu izan daitekeela hau. Ez daki nork duen egia hutsa gai hauei dagokienez. Bakoitzak nahi duen erabakia hartzen ahal du; haatik jendea erregulariki hurbiltzen zaio jakiteko herriak zer egiten duen Linky kontagailuen kontra. Auzapez Andereak ezin du aurka jo, baina alogero edo jabe bakoitzak jarrera bat hartzen ahal du gutun artamendatu bat igorritz.

Barbier Jaunak oharrarazten du erabiltzailea aitzinetik argiki informatu behar dela kontagailu komunikatu bat pausatua izanen dela. Horrek erran nahi du pausatua izan aitzin, jendea informatua izanen dela halre.

Auzapez Andereak erantzuten dio normalki aitzin informazio bat izanen dela baina kasu batzuetan, baimenik gabe instalatua izan da kontagailua.

Kanboarren arregurei erantzuteko, Auzapez Andereak errepikatzen du herriak ezin diola uko egin Linky kontagailuak ezartzeari.

Aiçaguerre Andereak galdegiten du ez ote daitekeenez posible hiru alderdiko bilkura bat antolatzea hautetsi, Enediseko ordezkari eta elkarteen artean. Adimendutsuak omen dira kontagailuak, iruditzen zaio pertsonak aski adimendutsuak direla elkarrizketatzeko.

Auzapez Andereak erantzuten dio bilkura batzuk jadanik antolatuak izan direla. Ez zuen berak bilkura hauetan parte hartu eta hainbat gaizto falta direnentzat, hala ere iruditzen zaio bikura horietara joaten direla Linky kontagailuaren alde edo kontra direla erabaki duten betiko pertsonak eta erranen zaienari beti kontrako argudioa aurkitzen dutenak. Arrats honetan banatu dokumentuan testuak eta Internet guneak agertzen dira bai eta hunkituak diren pertsona guziak gune ofizialetara joateko gomita, bakoitzak sentitzen duenaren arabera bere erabakia har dezan eta erakunde egokiari zuzent zatazion.

Auzapez Andereak Herriko kontseiluari galdegiten dio bere iritzia eman dezan alogero edo jabe bakoitzak erabaki Linky kontagailuak plantatzeari buruz. Ez du herriak erabakiko horrelako ahalmenik ez duelako.

Irastorza Jaunak galdegiten du noiz hasiko diren Linky kontagailuak Kanbon ezartzen.

Auzapez Andereak erantzuten dio 2020eko igurikatuak direla.

Aiçaguerre Andereak zehazten du laurogoita hamabost jadanik ezarriak izan direla. 2019ko abenduan hasi eta 2020ko martxoan bukatuko da instalazio aldi hori.

Auzapez Andereak bozkarazten du.

Aho batez onartua, Bacardatz Jaunak ez du bozkaldian parte hartzen.

## **15 – Herriko kontseiluko barne araudia.**

Auzapez Andereak azaltzen du biltzarreko kide guziei helarazia izan zaiela barne araudiaren aldaketa egitasmoa, gorriz agertzen diren aldaketekin, erran nahi baita:

4. artikulua: posible da dossierak Herriko kontseilu saio bat burutu aitzineko astean ikustea eta astelehenetik ostiralera, herriko kontseilariak dossierak herriko etxean bakarrik eta lan orduetan ikus ditzakete. Garai horretatik kanpo, dossierak ikus daitezke auzapezari hiru langun lehenago helarazi eskaera idtazi bat egin ondotik.

5. artikulua: ahozko eta idatzizko galderak.

Herriko kontseiluko kide orok auzapezari idatziak izan diren galderak helarazten ahal dizkio herria edo kontseiluaren ekintzari dagokien arazo edo afera guziendako.

Galderen testua auzapezari 72 oren bederen Herriko kontseilua aitzin idatziz helarazten zaio eta eskuratze agiri bat egingen da.

Luzatu galderen kopurua, garrantzia edo motak, aitzineko alinearen arabera justifikatuak baldin badira, auzapezak erabaki dezake ondoko saio batean aipatzea.

Gorago aipatu epea bukatu ondotik edo herriko kontseiluko saio batean egin galderak ondoko saio batean aztertuak izanen dira.

6. artikulua: Herriko batzordeak

Osasun-termalismo-turismo batzordea gehitua izan da 13 kiderekin, bai eta helgarritasun batzordea 10 kiderekin.

7. artikulua: Herriko batzordeen ibilmoldea  
Deigutuna eta gai-ordena, mezuelez helarazia zaio kontseilariari hamar egun bilkura burutu aitzin.

Ez da quorum baldintzarik.

Aztertu aferen txosten bat egiten dute. Txosten hau kontseiluko kide guziei komunikatua zaie.

11. artikulua: Saioaren idazkaritza

Saioaren idazkariak auzapeza laguntzen du quoruma eta ahalordeen baliozkotasuna, bozen ihardukimendua eta bozkaldiak ongi iragaiten direla egiaztatzeko.

15. artikulua: Biltzarraren iraganaldiaren zaintza

Auzapezak du bakarrik biltzarraren iraganaldia zaintzen.

17. artikulua: Saioaren iraganaldia

Herriko kontseiluari galdegiten dio saioko idazkaria izendtzea, Kontseiluaren ordehari gisa hartu erabakiak saio bukaeran azaltzen ditu auzapezak, Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L. 2122-23 artikuluko xedapenen arabera.

20. artikulua: Saio gelditzea

Saioko presidentek du saioa gelditzea erabakitzen. Kontseiluan ordezkatu taldeek eska dezakete ere.

22. artikulua: Bozak

Kontualdi administratiboa finkatua da bozen gehiengoa ez bada onarpen honen aurka agertzen (LKKO-ko L.1612-12 art.)

24. artikulua: Deliberamenduak.

Herriko kontseiluko saio publikoak grabatuak dira eta sintetizaturik ekarriak dira bilkura agirian.

Bilkura agiria bururatu eta nahi dutelarik honen beri har dezaketen Herriko kontseiluko kideen eskura geratzen da.

Saio bakoitzeko bilkura agiria onartzeko bozkaldi bat egiten da, hau burutu ondoko saioan.

Auzapez Andereak zehazten du ordu arte eta aldi honetan berriz ere, bilkura agirian Herriko kontseiluko eztabaidak hitzez hitz ekarriak zirela. Batzuetan irringarria izan daiteke. Bilkura-agiri bat sintesia bat da orduan, hemendik at, sintesia bat egina izanen da.

25. artikulua: Bilkura agiriak

Zortzi egun barne afitxatua da saioko bilkura agiria (LKKO-ko L.2121-25 artikulua). Euskarara itzulia den orduko bi hizkuntzetan afitxatua da.

Bilkura agiria herriko etxean afitxatua da horretarako plantatu taula batean. Herriaren gunean argitaratua da ere eta taula numerikoetan honen berri emanen da.

Kontseiluaren deliberamendu eta erabakien sintesi labur bat aurkezten du.

30. artikulua: Araudiaren betearaztea

Araudi hau onartua edo aldatua izanen den ondoko Herriko kontseiluaren kariatara aplikatu daiteke.

Aiçaguerre Anderearen iduriko damugarria da araudi hau heldu diren hauteskundeak baino hemeretzi hilabete lehenago aldatzea. Dena ongi ibili da orain arte, ez da arazo nagusirik.

Bere taldea ez da batere ados 5. artikuluekin « galderen testua Herriko kontseilu saio bat baino 72 oron lehenago bederen idatziz helarazten zaio auzapezari. Galdegiten du 45 oreneko epea atxikia izan dadin eta hau arrazoikoa dela frogatzen dute jurisprudentzia anitzek. « Versailles-eko auzitegi



administratiboak erabaki du 72 oreneko epea desegokia dela » 2011ko martxoaren 3ko erabaki batekin, besteak beste, eta, Aïçaguerre Andereak badaki oposizioko talde anitzek ohar berdinak egin dituztela eta erantzuna izan zaiela 72 oreneko epea desegokia zela.

Auzapez Andereak onartzen du 48 oreneko epea atxikitzea.

Aïçaguerre Andereak oharrarazten du bilkururako deien epea 15 egunetik 10 egunera apaltzen dela. Oposizioko taldearen aburuz, ez du horrek deus aldatuko. Gehiengoko taldeak besteak baino lehenago badaki batzordeak iraganen direla eta usu jendeen erdia edo gehiago eskas da. Arazoa gehiengoko taldearen mailakoa da, behar bada, eta ez oposizioko taldearen mailakoa.

Auzapez Andereak erantzuten dio ez dela benetako arazo bat, baina bai antolaketa istorioa.

Hiriart-Urruty Andereak aipatzen du batzordeen bilkura agiria idatzi behar dela. Biziki untsa iruditzen zaio, batzorde batzuek ez baitute nehoiz bilkura agiririk erakusten.

Auzapez Andereak bozkarazten du.

Aho batez onartua.

## **16 – Auzapezaren erabakien komunikazioa.**

Lurralde kolektibitateen kode orokorreko L. 2122-22 eta L. 2122-23 artikuluen eta 2017ko uztailaren 22ko Herriko kontseiluaren deliberamenduaren arabera, ondokoa jakinarazia da: 2018ko maiatzaren 20tik uztailaren 7a arte hilerrian kontzesioak eman edo berriz hartzeari buruzko erabakiak:

- 15 urteko kontzesio erosketak (lur betean): 1
- 30 urteko kontzesio erosketak (+ soto ttipia): 4
- 30 urteko kontzesio eraberritzeak (soto ttipiak): 2

2 500 €-ko diru sartzeak ekarri dituzte hilobi kontzesio hauek eta 9 465 € soto ttipi/kolonbarioek, orohar 11 965 € beraz.

## **17 – Orotarikoak.**

Auzapez Andereak erantzuten die oposizioko taldeak 2018ko uztailaren 19an, mezuel bidez egin galderei:

- « Kanboko herriak parte hartuko du Euskaraldian, nola? Eta ez badu egiten, zergatik? »  
Auzapez Andereak ezin dio erantzunik eman gaia ez baita eztabaidatua izan gehiengoko taldean.
- « Azken Herriko kontseiluan, azaldu genuen Arnagan guneko Facebook, Instagram eta Twitter kontuak elikatzeko zeregina zuen pertsona bat ezagutu genuela. Gehiengoko taldea harrtua izan da eta bazirudien ez zekiela pertsona honek lan hori betetzen zuela, argitasunak geldegin behar zenituzten, zertan zarete? »

Hala da, Auzapez Anderea harritu da egina izan zitzaion azalpenarekin ulertu baitzuen herriko etxeak pertsona bat enplegatzen zuela lan berezi horren egiteko.

Aiçaguerre Andereak hitza hartzen du adierazteko ez zuela hori enplegatze bat bezala aurkeztu baizik eta manatutako zerbitzu baten gisara eta jakin nahi zuen zer motako zerbitzua bete behar zuen.

Pontacq Andereak adierazten du zerbitzu manatze bat zela. Urte guziz, komunikazio plan bat abian ezartzen da Arnagan. Urte bukaeran burutua da plan hau, Auzapez Anderea, Arnaga museoko kontserbatzailea, Turismo Bulegoko zuzendaria eta beraren artean. Aurten, Arnagaren gunea berriztatua izan denez, garrantzitsutzat jo dute, Turismo Bulegoko zuzendariaren aholkuei jarraikiz, sare sozial arloa garatzea.

Aitzineko urteetan, Arnagari leku bat uzten zioten gune desberdinetan aurikztzen ahal ziren « visite passion » txartel ttipiak ba ziren Arnagan berean, eta haien komunikazio euskarri numerikoetan agertzeko parada eskainia zitzaion, 5 638 € ordainduz gero. Komunikazio mota hau ordeztuz, agenzia bati zuzendu nahiago izan dio herriak. Florence Calmèjane Andereak Instagram, YouTube, Twitter eta Facebook sare sozialetan esku hartzen du. 6 624 € ordaindua zaio lan horren truke.

Aiçaguerre Andereak dio herriak ez duela sekula erabakirik hartu zerbitzu honi dagokionez.

Devèze Jaunak erantzuten dio zerbitzu hau Arnagako komunikazio planan agertzen dela eta proposatu eta onartu herriaren aitzikontuan sartua izan dela.

- « Azken Kontseiluan, Bardin Jaunak iragarri du St Joseph parkeko argiteriaren % 41 dirulaguntza baten bidez finantzatua izanen zela, noren dirulaguntza da hura? »

Bardin Jaunak zehazten du du St Joseph parkeko argiteriaren kasuan, obra hauetarako kostu hautagarria 85 667 € heinekoa dela. Prefeturako erabaki batek onartuz gero, % 40-eko diruztatze bat atxiki du Batzordeak, Baserri Lurraldeetako Zuzkidura Horniduraren bitartez (DETR/BLZH), orohar 34 267 €-ko dirulaguntza.

M. Bru Jaunak egiaztatzen du BLZH hau lortu duela herriko etxeak.

- Dirulaguntzak aipatzen baitira, Devèze Jaunak oroitarazten du Aiçaguerre Andereak joan den ekainaren 4ko Herriko kontseiluan, konfiantza handiz AVAP planari buruz erran zuena okerra zela eta herriak 27 000 € edo 28 000 €-ko dirulaguntza lortu zuela. Egiazki, 28 930 €-ko zenbateko hau ez dirulaguntzarena baina bai herriak 2016ko abenduaren 31 arte egin xahutzea. Delako dirulaguntzari dagokionez, 13 965 €-koa da.
- « Aitzineko kontseilua batean, abisatu gaituzue 2019ko urtarrilaren 1etik goiti herria zela arduratuko eraikitze baimenak ikertzeaz eta herriko langile batzuek horretarako formakuntza bat segituko zutela. Epea bukatzekotan denez, langileek formakuntza abaitu ote dute, eta hala bada nolako formakuntza eta zoin da hau eskaini duen erakundea »

Bardin Jaunak berresten du formakuntza bat eskainia izanen zaiela hirigintza zerbitzuko bi langileek iraila edo urrian. Bi langileetako batek heineratze bat egingen duela baina formakuntza berdina segituko dute bi langileek.

Logizialari dagokionez, hitzordua hartua izan da AG CARTO hornitzailearekin heldu den agorrilaren 24ko. Logiziala honi buruzko langileei formakuntza eskainia izanen zaie abenduan, formakuntza honetan ikasitakoa 2019ko urtarrilan berean aplikatua izateko gisan.

Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du zenbat kostatuko duen formakuntza honek.

Bardin Jaunak erantzuten dio ez dakiela eta galdera honi heldu den Herriko kontseiluaren kariatara erantzunen diola.

Aiçaguerre Andereak galdegiten du zenbat orenko formakuntza den.

Bardin Jaunak erantzuten dio formakuntza 2018ko abenduaren 10etik 13ra iraganen dela.

- Bardin Jaunak biltzarreko kideei erantzuten die HTP-ren berrikuste orokorrari buruzko inkesta publikoa 2018ko agorrilaren 23an, astelehenarekin hasi eta irailaren 22an, larunbatarekin bukatuko dela. M. Fernand Lagrille, inkesta mandataria ondoko egunetan aurkituko da herriko etxean:
  - 2018ko agorrilaren 13an, astelehenarekin 9:00etatik 12:00etara
  - 2018ko agorrilaren 30ean, ostegunarekin 14:00etatik 17:00etara
  - 2018ko irailaren 5ean, asteazkenarekin 14:00etatik 17:00etara
  - 2018ko irailaren 22an, larunbatarekin 9:00etatik 12:00etara
- Magis Jaunak elizako obren egutegia azaltzen du. 2. aldiko obrak 2018ko irailan abiatuko direla eta sei hilabete iraunen dutela eta, 3. aldikoak 2019ko irailetik 2020ko martxora iragan daitezke.

- Auzapez Andereak herriko besten kariatara egin gomitak azaltzen ditu, Deba eta Kanbo herrien arteko birazkatze batordeak antolatu bazkariarekin, agorrilaren 4an, larunbatarekin, 13:30etan « Le Bellevue » jatetxean. Herriko kontseilua gomitatua da 2018ko agorrilaren 6an, astelehenarekin, 12:30etan Arnagako Laranjategian antolatu bazkarira eta langileen aperitifa 2018ko agorrilaren 7an, asteazkenarekin 11:30etan « Le Central » garagarnotegian antolatua da.

- Auzapez Andereak kontseilariei jakinarazten die Frantziako Itzulia dela eta, Kanboko igerilekua hetsirik egonen dela uztailaren 28an, larunbatarekin.

- Auzapez Andereak, geldialdian dagoen Frantz Candas herriko poliziakideak lehenago itzultzea galdegiteko igorri duen gutuna irakurtzen du.  
Kolektibitateak ezin dio itzultze honi uko egin baina eguna ez da oraindik finkatua.

- Bardin Jaunak, Kanboko Euskal Hirigune Elkargoaren HTP-ari buruzko bozkaldia aipatuz oposizioako taldeak herriko aldizkarian argitaratu artikulari zehaztapen bat ekarri nahi dio.  
« Euskal Hirigune Elkargoko hautestien egitasmo honetarako burutu bozkaldia historikoa izan da jadanik: 100 alde, 80 aurka, 40 abstentzio. »  
Bardin Jaunak EHE-ko deliberamenduen erregistro zatiari so bat botatzen diolarik, irakurtzen du « 108 boz alde, 48 boz aurka eta 40 abstentzio ».  
Egia behar bada akats bat dela eta beharrik orri bat baizik ez baitzaion oposizioari eskaintzen bestenez akats gehiago atzeman litezke edo bestenez nahitara egina liteke.  
Egun batez oposizioako taldeak herriko etxeko hauteskundeak irabazi beharko balitu, espero du ez dela nahasiko zenbakiak argitaratzean.

- Bacardatz Jaunak galdegiten du zoin diren hetsirik egonen diren bideak Frantziako Itzuliaren kariatara. Kanboko barnea hetsirik egonen ote da bide seinaleak ez baita.

Irastorza Jaunak erantzuten dio bide seinalerik ez izateak erran nahi duela ez dela hetsia izanen. Ez da karrika hetsirik egonen Kanbo herrian. Bakarrik zailagoa izanen da errepidetik ibiltzea kirol zelaiaren inguruan, kazetariak han izanen direlako.

Auzapez Jaunak saioa 21:25etan bukatutzat ematen du.